



Kale garbiketa. Informazio orokorrak.

1. Kale garbiketa. Definizioa.

Kale garbiketa ondorengo lanetan datza: hondakinak, hondarrak eta lurrak kentzea espaloi, galtzada, pasealeku, plaza eta hiri-altzariak osatzen duten elementuetatik; berauek zamatzea eta behar den tokira garraiatzea ezarritako maiztasun eta baliabiderekin eta bete beharreko ordutegietan.

Oro har bide publiko guztietako espaloi, galtzada eta arkupeak ekortu eta garbitzeaz gain, ondorengo kasuetan ere garbiketak egiten dira, besteak beste: azokak, herriko festak, fatxadak eta grafitiak, hostoak, kale-zurruta, erreka bazterrak, txikleak kentzea, elurra kentzea, etab.

2. Garbiketa sistemak. Garbiketa sistema erabakitzeko hainbat alderdi hartuko dira kontuan, besteak beste, hiri azpiegiturak. Modalitateari dagokionez bi multzotan banatu daitezke garbiketa sistemak:

- Oinarrizkoak: Ekorketa (barrido) eta ureztatze bidezko arrastea (baldeoa)
- Bereziak: xurgatzea, urez garbitzea, aire-zurruzta garbitzea, puntu arazotsuen garbiketa produktu kimikoekin, etab.

Garbitu beharreko guneak ere oro har bi motatakoak izan daitezke: hirigunea, dentsitate handikoa eta hiri-inguruetako guneak, dentsitate txiki edo ertainekoak. Garbiketaren maiztasunean eragina izango dute gune motak, hau da, dentsitatearen arabera erabaki beharko da gune bakoitza garbitzeko maiztasuna.

3. Ekorketa. Ekorketa bide publikoan pilatutako hondakinen lehorreko herrestatzea da ondoren erretiratuak izan daitezen. Ekorketa motak hiru dira: eskuzkoa, mekanikoa eta mistoa. Bat edo beste aukeratzeko herriko kaleak multzotan banatuko dira eta ondorengo puntuak hartuko dira kontuan:

- Gertutasuna
- Espaloiaren zabalera
- Kontenedoreak egotea
- Hondakin kopurua eta bolumena
- Bide-zoru motak

3.1. Eskuzko ekorketa. Eskuzko ekorketa garbiketa tratamendu legez, honela definitzen da: bide publikoetan (espaloiak, kale zintarri eta galtzadak, etorbideak, plazak, etab.) dauden hondakinak herrestatu, pilatu, poltsetan

sartu eta erretiratu herri hondakin solidoen kudeaketarako zirkuitoetan txertatzeko.

3.1.1. Eskuzko ekorketa bakarka.

- Erabili beharreko tresnak: erratz handia, poltsak eramateko orga, eskobilloa, pala, otzara, tablillak, aitzurra, paperontzien giltzak, poltsak.
- Prozedura:
 - o Langilea oinez joango da garbitu beharreko sektorearen hasierara erabili beharreko tresna guztiekin.
 - o Poltsa jarri orgaren zirrindolan
 - o Aukeratutako kale zatian dauden paperontziak hustu jarritako poltsan.
 - o Espaloiko belarra eta sastraka kendu aitzurra erabiliz.
 - o Espaloia erraztatu hondakinak pilatuz, fatxadatik zintarrira 50 metroko distantziak kubrituz.
 - o Itzuleran zintarri inguruan eta kotxe tartean dauden hondakinak erraztatuko dira.
 - o Behin orgara iritsita, ekorketa tresnak utzi eta bilketa tresnak hartuko dira eta, erraztatu den norantza berean, eta erraztatzean egindako hondakin pilak batzen joango da langilea, eskobillo eta palarekin.
 - o Hondakinen pilaketa orgaren poltsan. Behin beteta, poltsa itxi eta kale bazter batean uzten da ondoren ibilgailu sateliteak jaso dezan.
 - o Prozedura hau garbitu beharreko sektore osoko kale guztietan errepikatuko da.
 - o Garbiketa mota hau optimizatzeko hasiera edo/eta amaiera puntua pabiloitik ahalik eta hurbilen egongo dira eta komertzioen eta eskolen ordutegiak kontuan hartuko dira, besteak beste.

3.1.2. Ibilgailuarekin lagundutako ekorketa.

Sistema hau, batez ere, urrunen dauden puntuetan erabiltzen da edo ibilbide bat herriko aldentutako gune ezberdinetatik pasatzen bada.

3.1.3. Brigadako ekorketa.

Sistema hau, batez ere, festa edo ekitaldi berezietan erabiltzen da. Lehenik beira edo barredorak xurga ezin ditzakeen objektuak jasotzen dira eskuz, ondoren barredora pasatzen da eta azkenik, baldeoa egiten da. Baldeoa egin ondoren, estolda-zuloen inguruetan geratutako hondakinak jasotzen dira eskobilloa eta palaren laguntzaz.

3.1.4. Errepaso ekorketa.

Mugimendu handiko kaleetan oinarrizko garbiketa jarduerak ez dira nahikoa izango eta errepaso ekorketak egin beharko dira. Errepaso ekorketa eskuz egindako ekorketari dagozkion lanak dira (espaloi, zintarri eta pasealekuen garbiketa, paperontziak hustutzea, txorkoak garbitzea, etab.), behin oinarrizko garbiketa eginda, oraindik zikin daudenak.

Hortaz, ez da azalera guztia berriro ekortu beharko baizik eta zikin ikusten diren guneak soilik. Maiz, elkarrengandik urruti dauden puntuak erreparasatu behar dira eta horregatik ekorketa mota hau motorizatua izatea komeni da.

3.2. Aspiraziozko ekorketa mekanikoa

Autopropulstsatutako makinarekin egindako garbiketa mota da. Makinak bere eskuila birakariek jasotako hondakinak tangara garraiatzeko aspirazio sistema du. Sistema honek, eskuzko ekorketak bildu ezin dituen hondakin asko batzen ditu, batez ere hondarra eta hautsa. Mota askotako gunetan aplikatu daitekeen sistema da eta oztopo eta irregulartasun gutxiko eremu zabaletan erabiltzeko egokiena. Gainera, oso eraginkorra da zintarriak garbitzeko.

- Prozedura:
 - o Pabilioitik garbiketa ibilbidea hasteko gunera langilea barredorarekin ahalik eta azkarren joango da, betiere trafiko arauak errespetatuz.
 - o Barredora garbitzen ari den bitartean abiadura motelduko da. Langileak sarri aldatu beharko du ekorketaren zabalera eta eskuilen intzidentzia angelua bide-zoruarekiko.
 - o Makina iristeko moduan dauden azalera guztiak garbituko dira. Bertan pilatutako hondakinak erretiratuko dira beharrezko diren pasaldietan.
 - o Behin tanga beteta langilea adierazitako transferentzi gunetara abiatuko da berau husterara.

4. Ureztatze bidezko hondakinen arrastea.

Sistema honekin zikintasuna kentzen da (hautsa, paperak, zigarro-mutxikinak, hondakinak...) bide-azalerara presiopeko ura proiektatuz, ondoren, ur-lasterrak hurbilen dagoen estolderia-ahora herrestatu dezan. Garbiketa urarekin eskuzkoa, mekanikoa edo mistoa izan daiteke.

4.1. Eskuzko garbiketa urarekin.

Eskuzko garbiketa urarekin herriko ureztatze sarera konektaturiko mahuka erabilia egiten da, erratz edo eskoboia ren laguntzarekin. Garbiketa mota hau oinarritzko garbiketa sistema bezala erabiltzen da hirigune eta komertzio guneetan.

- Erabili beharreko tresnak: Eskoboia, pala, espatula, detergentea, desinfektatzailea, poltsak, mahuka eta bere osagarriak.
- Prozedura:
 - o Hondakinak uraren indarrarekin kendu eta herrestatu beharko dira, betiere berauek galtzadaren marjinetara zuzentzen direlarik eta estolda-zulotara doazela kontrolatuz.
 - o Estolda-zuloa hostoz, adarrez edo beste hondakinez estalita egonez gero, alde zurrustatik hondakin horiek ekortu eta jaso egingo dira.
 - o Ur-zurrusta zuzenean eta bide-zurutik ahalik eta hurbilen aplikatuko da.
 - o Bide-zorura itsatsita dauden txikleak alde zurrustatik espatularekin kendu eta jasoko dira.
 - o Behin nahikoa hondakin bilduta erratz eta palarekin jaso eta poltsetan sartuko da.

4.2. Garbiketa mekanikoa urarekin.

Garbiketa hau presiozko ur-ponpa duen kamioi-zisternarekin egiten da. Kamioiaren aurrean dauden piten bidez botatako ur-zurrustak zirkulazio-bidean eta espaloian pilatutako hondakinak eramaten ditu.

Sistema mota hau aproposa da jarraiko bide-zoru, espaloi eta oinezkoen guneeetan erabiltzeko. Espaloietan eta oinezkoen guneeetan erabiltzekoa bada, gutxienez bi metrotako zabalera eta oztopo gutxi izan beharko dute.

5. Zerbitzu bereziak

5.1. Gune industrialetako garbiketa

Hernanin, ia herri guztietan bezala, industria, komertzio eta enpresa kopuru handia batzen duten gunek daude. Industria gune horien ezaugarri bezala, trafiko astuna izatea eta zamalanak egiteko etengabeko bideen okupazioa nabarmenduko ditugu.

Industria guneen garbiketa, ahal den heinean, lan bolumen handiena duten orduak saihestuz egingo da.

Garbiketa sistemarik egokiena gune hauetan ekorketa mekanikoa da edukiera handiko barredorearekin. Tratamendu hau eskuzko errepaio ekorketarekin osatu daiteke, espaloiak garbitzeko eta abandonatuta utzitako hondakinak jasotzeko.

5.2. Fatxaden garbiketa

Azken urtetan pintadak eta nahi ez den publizitatea ohiko bilakatu dira gure herrietan. Horren ondorioz, kaleen etengabeko narriadura areagotzen joan da, herrien armonia estetikoa galduz. Arazo hau eraikinen fatxadetan, orube-hezietan, monumentutan eta hiri-altzarietan ematen da batik bat.

Kartelak erretiratzearen zailtasuna erabilitako kolaren kalitatean eta paperaren tratamenduan datza. Kola biguntzeko ura proiektatzen duen makina batekin kentzen dira kartelak.

Errotuladore edo aerosolekin egindako pintadak erraz garbitzen dira, baina berauek kontrolatzea oso zaila da ezin konta ahalakoak direlako. Garbiketa mota hau egiteko, presio txikiko hidro-ezabatze sistema erabiltzen da. Lehenik dekapante bat aplikatzen da brotxa baten laguntzaz, 10 bat minutuz itxaron, eta ondoren ura presioan aplikatzen da ezabatzeko.

5.3. Hiri-altzarien garbiketa

Hiri-altzarien garbiketa normalean presiozko-ur proiektzio sistemekin egiten da, hondakinak bigundu eta erretiratuak izan daitezen.

5.4. Hosto garaiko garbiketa

Hostoen erorketak eta herriko zuhaitzen kimaketak garbiketa taldeak gainezkatzen dituen urtaroko problema izaten dira. Izan ere, udazkenean eta negu hasieran zerbitzu bereziak aurreikusi behar dira garbiketa hau egin ahal izateko.

Hostoen bilketa, eskuzko ekorketaren zerbitzu gehigarri bezala planteatu daiteke, baina emaitza hobekien lortzen dira berariazko tresnekin zerbitzu berezia diseinatzen bada.

Zerbitzu hori bi modutara burutu daiteke:

- Ibilgailu eta ekipo xurgatzaile bidezko bilketa: langile talde bat sopladorarekin hostoak pilatzen joaten da, beste langile batek xurgatzen dituelarik.
- Ekorketa misto bidezko bilketa: Hosto kopurua ez denean hain handia edo garbitu beharreko kaleetan kamioi xurgatzailea ez denean sartzen. Sistema honetan langile talde batek hostoak pilatzen ditu aspiraziozko barredorak jaso ditzan.

5.5. Festa garaiko garbiketa

Hernanin, beste herrietan bezala, urtean zehar hainbat jai ekitaldi egoten dira. Festen hasiera baino lehen eta amaitu ondoren garbiketa plangintza berezi bat egin behar da prebentzio eta zuzentze neurriak aurreikusten dituen. Horrez gain, eta festak dirauen bitartean zerbitzu bereziak planifikatu beharko dira, besteak beste, festen iraupena, parte-hartzaile kopurua eta sortuko diren hondakinen estimazioa kontuan hartuta.

Aipatu beharreko festa garai nagusiak Hernanin ondorengoak dira:

- Sagardotegi garaia
- Gabonak
- Inauteriak
- San Joan jaiak
- Auzoetako jaiak

5.6. Izotzaldietako zerbitzu bereziak

Izotzaldietan kontuan hartu behar den gidalerro nagusia aurrea hartzea da. Galtzadan izotz plakak eraketa ekiditeko prebentzio tratamendu urgarriak aplikatuko dira.

Zerbitzu hau, batez ere, jende ugari izaten duten guneeetan aplikatuko da: ikastetxeak, osasun zentroak, zebra bideak, espaloira igotzeko arrapalak, trafiko handiko kaleak eta etorbideak, etab.

Zerbitzua izotza kentzeko hortza eta gatza banatzeko ekipoa duen barredorarekin egingo da.

5.6.1. Prebentzio tratamendua

Izotz plaken eraketa ekiditeko, bide publikoak material desberdinekin tratatuko dira. Oro har bi motatakoak izan daitezke material horiek:

- Kimikoak
- Inerteak

Tratamendu kimikoak neurri prebentibo bezala aplikatu daitezke edo/eta behin izotza/elurra dagoenean. Material inerteek, aldiz, trakzioa hobetzeko azalera irregularra sortzea dute helburu. Biak batera aplikatu daitezke, baina kontuan hartu

behar da material inerteekin lortutako trakzioa gutxitu egingo dela behin izotza edo elurra urtuta.

Tratamendu kimikoan erabiltzen diren material nagusiak ondorengoak dira: sodio kloruroa, kaltzio kloruroa, potasio kloruroa, magnesio kloruroa, amonio nitratoa, amonio sulfatoa, potasio azetatoa, urea...

Gehien erabiltzen dena, ekonomikoena izateagatik, sodio kloruroa da eta bi eratarazabalduta daitezke: lehorrean (gatz aleak zabalduz), urarekin nahastuta gatzun gisa.

Tratamendu inertean erabiltzen diren material nagusiak ondorengoak dira: hondarra, obra-hondakinak, zerrautsa, etab.¹

¹ Dokumentu honetan biltzen diren informazioak 7 Editores argitaletxearen "Operario de limpieza viaria" eskuliburutik ateratakoak dira.